

ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN ORRIEI BURUZKO DATUAK

I. ATALA - KONTRATUAREN EDUKIA

OBJEKTUA	Urola Kostako Udal Elkarteak kudeatzen dituen garbiguneetan eta Urteta zabortegean dagoen sailkapen plantan jasotako egur-hondakinak kudeatzeko zerbitzua
IZAERA	Zerbitzu-kontratua, 3/2011 LEDren IV. Liburuko II. Tituluko V. kapituluak arautzen duena.
BURUTZEKO EPEA	2 urte , urteka luza daitekeena, gehienez 4 urte arte.
LIZITAZIO-PREZIOA	32.966,36 euro urtean, BEZ %10 sartu gabe (guztira, luzapenak sartuta, 131.865,45 euro, BEZ %10 sartu gabe).
AURREKONTU-SAILA	Indarrean dagoen Udal Elkarteko aurrekontua.
ORDAINTZEKO ERA	Hilero.
BERMEAK	Behin-behinekoa: ez da eskatzen. Behin betikoa: esleipenaren prezioaren %5.
BESTE BETEBEHAR BATZUK	Erantzukizun zibileko poliza edukitzea, gutxienez 600.000,00 euroko estaldurarekin.

II. ATALA - KONTRATATZEKO PROZEDURA

PROZEDURA. MODUA.	Prozedura irekia.
ESLEITZEKO IRIZPIDEAK	1) Diru-eskaintza 0-50 2) Eskaintzaren kalitate teknikoa 0-40 3) Proposatutako hobekuntzak 0-10
FINANTZA ETA EKONOMIA KAUDIMENA	Finantza erakundeen txostena edo arrisku profesionalen kalte-ordainerako aseguruaren jabe dela adierazten duen egiaztagiria.
KAUDIMEN TEKNIKOA	* Azken hiru urteetan egindako lan eta zerbitzu nagusien zerrenda. Zerbitzu guztien zenbatekoa, data eta onuradun publiko nahiz pribatua adierazi behar dira. * Kontratua betetzeko erabiliko diren materialak, instalazioak eta lantalde teknikoa. *EAEn egurraren kudeatzaile baimendu izatearen ziurtagiria
AURKEZTEKO EPEA	15 egun, GAO n argitaratzen denetik hasita
AURKEZTEKO LEKUA	Urdaneta bidea, 6 20800, Zarautz Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN JABETZAKOAK DIREN GARBIGUNEETAN ETA URTETA ZABORTEGIAN DAGOEN SAILKAPEN PLANTAN JASOTAKO EGUR-HONDAKINAK KUDEATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN ORRIAK

LEHENENGO ATALA - KONTRATUAREN EDUKIA

1.- KONTRATUAREN OBJEKTUA ETA IZAERA

Kontratu honen objektua da Urola Kostako Udal Elkartearen jabetzakoak diren garbiguneetan eta Urteta zaborteagian dagoen sailkapen plantan jasotako egur-hondakinak kudeatzeko zerbitzua eskaintzea. Hori guztia egin behar da kontratu izaera duten baldintzen orriotan eta eskakizun teknikoan orrietan ezarritakoaren arabera.

Kontratazio hau zerbitzu-kontratu gisa gauzatuko da, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen 3/2011 LEDren 301. eta hurrengo artikuluek arautzen dute.

2.- KONTRATUA BETETZEKO EPEA

Kontratua burutzeko epea **2 urtekoa** da, kontratua gauzatzen denetik hasita. Kontratua luzatu ahal izango da urtebeteka. Nolanahi ere den, kontratua burutzeko epea, luzapen eta gutzia, gehienez ere 4 urtekoa izango da.

3.- KONTRATUAREN PREZIOA

Lizitazioaren aurrekontua, gehienez ere, 32.966,36 eurokoa izango da urtean, %10eko BEZ sartu gabe. Lizitatuzaileek zenbateko hori hobetzeko aukera izango dute eskaintzetan. Kontratu osoaren aurrekontua, luzapenak kontuan hartuta, 131.865,45 eurokoa da (%10eko BEZ sartu gabe).

Kontratu honen prezioa finkatzeko sistema oro harreko prezioarena da, 3/2011 LEDaren 302. artikulua ezarritakoaren ondorioetarako.

Aurkeztutako proposamenetan, kontratuaren prezioaz gain, BEZa ere sartuta dagoela ulertuko dugu. Horiez gain, kontratistak bere zerbitzua burutzeko behar dituen gastuak ere (zuzenak nahiz zeharkakoak) prezioaren barnean daudela ulertuko da.

4.- FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioari aurre egin eta kontratuaren ondorio diren betebeharreri aurre egiteko Udal Elkarteak badu indarrean dagoen aurrekontuko dagokion kontusailean nahikoa kreditu.

Halaber, Udal Elkarteko aurrekontuak erabakitzeke eskumena duen organoak konpromisoa hartzen du kontratuak lotu ditzakeen ekitaldietan behar diren kredituak gordetzeko.

5.- ORDAINTZEKO MODUA

Zerbitzua jaso eta ontzat jo ondoren, egindako lanak ordainduko dira emandako kontratuaren argitara, berdinak diren hileroko 12 ordainketetan, esleipendunak faktura aurkeztu eta Udal Elkarteak onartu eta gero.

Esleipendunaren betebeharra da Urola Kostako Udal Elkarteari faktura bitarteko eta formatu elektronikoaren bidez egin eta helaraztea.

Udal Elkarteak faktura elektronikoak jasoko ditu faktura elektronikoen Gipuzkoako sarrera-puntu orokorretik. Sarrera-puntu hori dago Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan. Egoitza horretan bertan datoz sarrera-puntu orokorrari buruzko argibideak nahiz faktura elektronikoak egiteko programa doan jaitsi edo eskuratzeko esteka (<https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua>).

Fakturan, edonola ere, honako datuak adierazi behar dira:

- Albaran zenbakia
- Hondakinak noiz jaso diren (eguna eta ordua zehaztu behar da)
- Hondakinak non jaso diren

Ordainketak egingo dira esleipendunak adierazten duen finantza erakundera transferentzia eginez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 216. artikulua aurreikusitako epeen barruan.

Hileko fakturari Udal Elkarteak kenketak egin ahal izango dizkio, esleitutako zerbitzuak ez betetzearen, osorik ez betetzearen edo jar litezkeen zehapenen ondorioz.

6.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

Ez dira berrikusiko.

7.- BERMEAK

Ikuspegi ekonomikotik erreparatuta abantaila gehien eskaintzen dituen eskaintza egiten duenak, bere gain hartutako betebeharrak betetzeko, behin-betiko bermea jarri beharko du Urola Kostako Udal Elkartearen alde. Bermea esleipenaren zenbatekoaren %5 izango da (BEZ barne hartu gabe), Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 95.1 artikuluari jarraiki.

Behin betiko bermea jartzeko epea **10 lanegunekoa** izango da, bermea jartzeko eskaera jaso eta hurrengo egunetik hasita. Bermea jarri ahal izango da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 96. artikulua ezarritako bideak erabiliz eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 55. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako baldintzen argitara. Esleipendunari egotz dakizkiokeen arazoak direla-eta, ez balitz baldintza hori beteko, Administrazioak amaitutzat joko du kontratua.

Bermea eskudirutan jartzen bada, 2095.5076.41.1061556162 zenbakia duen Kutxako kontu korrontean sartuko da bermearen zenbatekoa, eta abonu-agiriaren kopia bat aurkeztuko zaio Udal Elkarteko Diruzaintzan.

Bermea itzuliko da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 102. artikuluan xedatutakoari jarraiki, berme-epea amaitu eta esleipendunak legezko betebeharrak guztiak bete ondoren.

8.- KONTRATUAREN JABEAREN BETEBEHARRAK

Kontratua betetzeak izan ditzakeen arriskuak kontratistari dagozkie.

Kontratua burutzeko honakoak hartuko dira aintzat: administrazio baldintzen orri hauek, eskakizun teknikoaren orriak, aplikatu behar den araubide orokorra eta, nolana ere den, kontratatutako lanek eskakizun dituzten arau teknikoak. Kontratua burutuko da Udal Elkartearen ikuskapen eta zuzendaritzapean; Udal Elkarteak ikuskapen eta zuzendaritza lanak ahoz nahiz idatziz bideratu ahal izango ditu.

Egindako lanen kalitate teknikoaren eta zerbitzuen erantzukizuna izango du kontratuaren jabeak. Lanak egiten diren bitartean izan litezkeen hutsegite, akats, metodo desegoki edo ondorio okerrekin Administrazioari edo hirugarrenei sor diezazkiokeen ondorioen erantzukizuna ere kontratuaren jabearena izango da. Kontratistak zerbitzua behar bezala burutzen dela zaindu eta hori lortzeko behar diren neurriak hartuko ditu. Lanak egiten

direnean ahalik eta kalterik txikiena sortuko zaie herritarrei (bideak ahalik eta gutxien okupatu, ibilgailuen trafikoari ahalik eta oztopo gutxien egin eta abar).

Kontratuaren jabeak jarri behar ditu lanak behar bezala egiteko behar diren ekipamenduak edo bitarteko osagarriak, kontratuan adostutako epeetan. Gainera, bere betebeharrak betetzeko behar dituen langileak kontratatuko ditu.

Eskaintzan agertzen diren teknikarien taldean aldaketak egitea Administrazioak onartu egin behar du, eta esleipendunak izendatu nahi dituen pertsonen curriculum vitaeak aurkeztu beharko ditu, Administrazioak horrela eskatzen badio. Horrez gain, kontratistaren betebeharra da kontratua indarrean dela sortzen diren gorabehera guztien berri Udal Elkarteari berehala ematea.

Kontratuaren jabeak arduradun bat izendatuko du, kontratuaren jabearen eta Udal Elkartearen langileen arteko harremanak zuzenean koordinatzeko. Udal Elkarteak Zerbitzu Teknikoen eta kontratuaren jabearen artean egin behar diren bileren kopuru eta maiztasuna eta erabili beharreko informazioa Udal Elkarteak zehaztuko ditu. Udal Elkarteak pertsona hori ordezkatzeko eskatu ahal izango dio kontratuaren jabeari, kontratatutako zerbitzua ona izateko hori egitea beharrezkoa dela irizten badu. Era berean, Udal Elkarteak informazioa bildu eta esleipenduna egiten ari den lana gainbegiratu ahal izango du.

Esleipendunak, bestelako ordain osagarririk gabe, kontratua behar bezala burutzeko beharrezko diren zerbitzu guztiak eskainiko ditu, lan eta informazio bileretan parte hartzea barne.

Bestalde, kontratistaren betebeharra da kontratatutako zerbitzuaren inguruan ezagutu ditzakeen datu guztien nortasuna eta sekretua zaintzea, datu horiek isilpekoak baitira. Kontratuaren jabeak Administrazioari eta eraginda ikusi diren pertsonen kalte-ordainak eman beharko dizkie isiltasun profesionala urratzeagatik sortutako kalteen truke.

Kontratua betetzeko enpresa esleipendunak izaera pertsonaleko datuak erabili behar baldin baditu, izaera pertsonaleko datuak babesteko indarrean dagoen araubidea beteko du. Kontratutako zerbitzua bukatu ondoren, datu pertsonalak Udal Elkarteari itzuliko dizkio. Kontratuaren jabeak desegin egin beharko ditu bereak, Udal Elkartearen baimen idatzia eduki ezean. Beste zerbitzu batzuetarako erabilgarriak izan daitezkeela ikusten bada, Udal Elkarteak datu horiek gordetzeko baimena eman dezake, betiere, beharrezko segurtasun-baldintza guztiak beteta eta zehaztutako epean —gehienez ere bost urte—.

Kontratistaren ardura da eta bere gain doa lanak behar bezala egiteko behar diren baimen eta lizentziak lortzea eta baimen horietan eskumena duten erakundeek ezarritako eskakizunak betetzea.

9.- KONTRATUAREN JABEAREN LAN-BETEBEHARRAK

Kontratutako langileei dagokienez, kontratuaren jabeak lanaren, Gizarte Segurantzaren, laneko segurtasunaren eta higienezaren eta laneko arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dauden legezko xedapen guztiak beteko ditu; ez baditu xedapenok betetzen, Urola Kostako Udal Elkarteak ez da erantzule izango.

Esleipendunak azaroaren 8ko 31/1995 Legea (lan-arriskuen prebentzioari buruzkoa), urtarrilaren 30eko 171/2007 Errege Dekretua (aipatutako lege horren 24. artikulua, enpresa-jardueren koordinazioaren atala, garatzen duena) eta lan arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dauden bestelako xedapenak bete behar ditu, baldintzen orri hauen **III. ERANSKINEAN** ezarritakoarekin bat etorritik.

10. ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILPENARI DAGOKIONEZ

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6c. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua.

Arau orokor gisa, kontratuaren objektua osatzen duten azterlan, txosten, egitasmo edo bestelako lanak bi hizkuntza ofizialetan egingo dira (euskaraz eta gaztelaniaz).

Kontratu honen objektua burutzeak beste batzuei (herritar zein enpresa) zerbitzuak eskaintzea edo beste batzuekin harremana izatea baldin badakar, erabiltzaile edo hartzaile den pertsonak hautatzen duen hizkuntza erabiliko du esleipendunak harekin komunikatzeko, ahoz zein idatziz. Berariaz hauturik egiten ez bada, esleipendunak pertsona fisiko zein juridikoei egin beharreko jakinarazpen eta komunikazioak bi hizkuntza ofizialetan egingo ditu. Nolanahi ere den, herritar edo hartzaileak nahi duenean hautatu ahal izango du bi hizkuntzetako bat eta esleipendunak hautu hori errespetatu beharko du.

Esleipendunaren eta Udal Elkartearen arteko ahozko harremanak euskaraz izango dira (telefono elkarrizketak, lan-bilerak, aurkezpenak...). Esleipendunak izendatutako ordezkari edo teknikariek baldintza hori betetzeko gauza ez badira, Udal Elkarteak langile horiek ordezkatzeko eskatu ahal izango du.

Esleipendunaren eta Udal Elkartearen arteko komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz izango dira, bai komunikazio formalak (txostenak, memoriak...), bai informalak (lanerako zirriborroak, mezu elektronikoak...). Udal Elkarteak eskubidea izango du komunikazio formalak soilik euskaraz eskatu eta jasotzeko.

Baldintza honetan eta eskakizun teknikoaren orrietan ezarritako baldintzak kontratuaren funtsezko baldintza dira, 3/2011 LEDak aurreikusitako ondorioetarako, eta ez betetzeak kontratua amaitutzat ematea ekar dezake, 223.f) artikulua argitaratu, edo 212. artikuluan zehaztutako zehapenak jartzea, esleipendunak kontratuaren funtsezko baldintzak ez betetzeagatik. Zehapenak finkatuko dira kasuan kasu, ez betetzearen larritasuna kontuan hartuta.

11.- LAGATZEA ETA AZPIKONTRATATZEA

Esleipendunak ezin dizkio beste pertsona edo erakunde bati laga edo eskualdatu kontratutik eratortzen diren eskubide eta betebeharrak, aurrez eta berariaz Urola Kostako Udal Elkartearen baimena izan ezean.

Lehiatzaileek eskaintzan zehatz-mehatz adierazi behar dute kontratuaren objektuaren zein zati azpikontratatzeari aurreikusitako dute. Halaber, adierazi behar dute zati horren zenbatekoa eta azpikontratatuaren litratekeen enpresen izen edo profil profesionala (kaudimen tekniko eta profesionalaren argitara).

Horrez gain, azpikontratazioak bete beharko ditu Kontratuen Legearen testu bateginaren 227. artikulua ezartzen dituen gainerako eskakizunak.

12.- ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Esleipenduna izango da kontratuko eragiketen ondorioz beste batzuei sortzen dizkien kalte eta galeren erantzule, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 214. artikuluaekin bat etorritik.

Kontratuaren jabeak aseguru bat kontratatuta izan behar du kontratua betetzeko epean eta berme epean, kontratua burutzen ari dela eragin ditzakeen kalte eta galeren erantzukizunari aurre egiteko. Aseguru horrek 600.000,00 euroko estaldura izango du gutxienez eta, besteak beste, honako hauek berariaz adieraziko ditu: aseguratuak (aseguratuaren artean Urola Kostako Udal Elkarteak berariaz agertuko da), gutxieneko estaldurak eta bermatutako kopuruak, epeak, adierazitako aseguratuak kopuruak... Datu horiek guztiak edozein unetan egiaztatuko beharko ditu, Udal Elkarteak horrela eskatuz gero. Horretarako, jatorrizko poliza, polizaren primen ordainagiriak edo aseguru-etxearen ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu kontratuaren jabeak. Baldintza honetan ezarritako eskakizunak ez egiaztatzea kontratua amaitutzat emateko arrazoi izango da, izan ere, 3/2011 LEDren 223 f) artikulua argitaratu, betebeharrak hori funtsezko kontratu-betebeharra da.

13.- KONTRATUA EZ BETETZEA ETA EZ BETETZEAGATIK ESLEIPENDUNARI JARRIKO ZAIZKION ZEHAPENAK

Kontratuaren jabeak baldintzen orrietan edo eskakizun teknikoaren orrietan ezarritako betebeharrak edo kontratatutako zerbitzuak hobeto burutzeko Udal Elkarteak emandako aginduak betetzen ez baditu, Udal Elkarteak ahalmena izango du kontratuaren jabeari kontratuak duen aurrekontuko %010eko zehapena ezartzeko, Kontratuen Legearen 212.1 artikulua araberak.

Kontratuaren jabeak bere errua dela eta ez badu kontratua burutzeko epea betetzen (epe orokorra nahiz tarteko epeak), Administrazioak aukera izango du, kontratua amaitzeko edo zehapena jartzeko, hain zuzen ere egun bakoitzeko 1.000 euro bakoitzeko 0,20 euroko zehapena, kontratuaren prezio osoari aplikatuta.

Atzerapenengatik jarritako zehapenak kontratuaren prezioaren ehuneko 5eko multiplora iristen badira, Kontratazio Organoak eskubidea izango du kontratua amaitutzat emateko edo beste zigor batzuk jarri eta kontratuarekin jarraitzeko.

Bidezko arrazoi bategatik edo esleipendunari eta horren langileei ez dagokien ezinbesteko arrazoi bategatik, kontratuaren jabeak jakinarazten badu ezin duela aurreikusitako zerbitzuren bat eman, zehapenik ez ezartzeko aukera izango du Administrazioak, kontratuaren jabeak akatsa konpontzeko neurri egokiak eta berehalakoak hartzen baditu. Horrelakorik gertatzen bada, egin gabeko lanei dagokien zenbatekoa kendu egingo zaio kontratuaren prezioari.

Zehapenaren kopurua (irimo bilakatu ondoren) kontratuaren jabeari ordaindu behar zaion hurrengo fakturatik kenduko zaio, edo, bestela, behin-betiko bermetik. Bigarren hori gertatuz gero, kontratuaren jabeak bermea egokitu egin beharko du.

Zehapena lan bat ez egiteak edo oker egiteak eragin badu, kontratuaren prezioaren ordainketa murriztu egingo da, kontratuak agindutako lanetik benetan eta behar bezala burutu den lanaren ehunekora arte.

14.- KONTRATUA AMAITZEA

Administrazio kontratua amaituko da bete delako edo amaitutzat jo delako.

Kontratuaren jabearekin kontratua bete dela iritziko zaio kontratuaren jabeak kontratuaren xedea guztiz betetzen duenean, kontratuko baldintza guztiekin bat etorriz eta Administrazioaren onarpenarekin.

Kontratua amaitutzat joko da kontratua bera edo orriotako baldintzak betetzen ez badira, edo eta Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 223. eta 308. artikuluetan adierazitako arrazoiengatik; halaber, kontratua amaitzeak Lege horretako 309. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

15.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Udal Elkarteak, kontratua egiten duen administrazioa denez, eskubidea du zerbitzua era egokian burutzeko behar diren jarraibide eta aginduak emateko, betiere kontratatutako prestazioak aldatu gabe.

Eta, orokorrean, honako hauek egin ahal izango ditu: kontratua interpretatu, kontratua betetzen sor daitezkeen zalantzak argitu, interes publikoa dela eta kontratua aldatu, kontratua amaitutzat jo eta horren ondorioak zehaztu. Hori guztia egin ahal izango du, betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak ezarritako muga, baldintza eta ondorioekin.

Udal Elkarteak zerbitzua ikuskatu eta zainduko du horretarako izendatutako teknikariaren edo teknikarien bitartez.

Bere eskubideak baliatuz kontratazio-organoek hartzen dituzten akordioak berehala betearaziko dira.

Akordio horien aurka Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107. artikulua aipatzen dituen errekursoak jarri ahal izango dira, bidezko bada.

BIGAREN ATALA - KONTRATATZEKO PROZEDURA

16.- ESLEITZEKO IZAPIDEAK ETA PROZEDURA

Kontratazio espedientea **prozedura arruntaren** bidez izapidetuko da eta kontratuaren lizitazioa eta esleipena **prozedura irekiaren bidez**. Kontratua esleituko zaio ikuspegi ekonomikotik onuragarriena den eskaintzari.

17.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Hona hemen kontratua esleitzeko oinarri izango diren balorazio-irizpideak, garrantzia handienetik txikienera jarrita eta bakoitzaren balioa zehaztuta:

a) Diru-eskaintza: 50 puntu

Diru-eskaintzak baloratzeko, honako puntuazio-sistema honi jarraituko zaio:

Gehieneko puntuazioa (50) emango zaio eskaintza onenari. Gainerako eskaintzak puntuatzeko honako eragiketa hau egingo da: puntuazio onenari kenduko zaio beherapenaren ehunekoaren eta eskaintza merkeenaren arteko aldea.

Eskaintza baten "beherapena" aterako da honela: ehun eta diru-eskaintza bakoitzak lizitazio-prezioarekiko ematen duen ehunekoaren arteko aldea: $100 \times (1 - \text{proposamena} / \text{lizitazioa})$

"Beherapen" handiena duen proposamenari "A beherapena" esango diogu eta gehieneko puntuazioa emango diogu, hau da, 50 puntu. Gainerako proposamenak (B) honako formularen arabera haztatuko dira: $50 - (A \text{ beherapena} - B \text{ beherapena})$; 0 puntuazioa emango zaio eragiketa horren emaitza negatiboa bada.

b) Eskaintzaren kalitate teknikoa: 40 puntu

Lehiatzaileek memoria tekniko zehatza aurkeztu behar dute, eskakizun tekniko zehatzen orrietan eskatutako dokumentazioarekin bat etorriz. Memoria horrek jasoko ditu zerbitzua antolatzeko eta emateko moduari (metodologia eta lan egitaraua barne) eta kontratua burutuko duen lantaldeari buruzko argibide guztiak. Aurkeztutako proposamenaren kalitate teknikoa baloratuko da, eta, horretarako, agindu teknikoetan ezarritako irizpide teknikoak hartuko dira kontuan. Horretarako, dokumentu bidez eta modu arrazionalen ondokoak zehaztuko dira:

- Zerbitzua kudeatzeko proiektua (zerbitzuaren irismena eta antolaketa): 30 puntu.
- Zerbitzuari atxikitako lantalde teknikoa: 5 puntu.
- Zerbitzuari atxikitako baliabide materialak: 5 puntu.

Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 1150.4 artikulua ezarritakoaren arabera, lehiatzaileek 20 puntu eskuratu beharko dituzte gutxienez atal honetan, lehiaketan aurrera jarraitu ahal izateko.

c) Proposatutako hobekuntzak: 10 puntu

Baloratuko dira lizitazio honen xede den objektuarekin zerikusia duten hobekuntzak, betiere ez badute eskaintzaren prezioa igotzen eta baldintzen orrietan eskatutakoak ez badira.

18.- KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Jarduteko gaitasuna duen pertsona fisiko nahiz juridiko, espainiar nahiz atzerritar orok izango du prozesu honetan parte hartzeko aukera, betiere kaudimen ekonomikoa, finantzaketa kaudimena eta kaudimen tekniko edo profesionala dutela egiaztatzen badute.

Gainera, enpresariak kontratu honen xede den jarduera gauzatzeko beharrezkoa den enpresa- edo lanbide-gaikuntza eduki behar dute.

Pertsona juridikoak kontratuen esleipendun izan daitezke kontratuaren zerbitzu edo objektua enpresaren helburu, objektu edo jarduera esparruarekin bat baldin badator, bere estatutuetan edo eratzeko dokumentuetan ezarritakoaren argitara.

Inola ere ezingo dute Udal Elkartearekin kontraturik egin Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean dauden pertsonak.

19.- PROPOSAMENAK

Lizitazio honen espedientea, baldintzak eta gainerako xehetasunak aztertu ahal izango dira Udal Elkarteko Idazkaritza-Kontuhartzailertzan, proposamenak aurkezteko epearen barruan, lanegunetan (larunbatetan izan ezik), 9:00etatik 14:00etara.

Halaber, lizitazioa iragarriko da Udal Elkartearen kontratatzailearen profilean (www.urolakosta.org) eta baldintzen orriak nahiz dokumentu osagarriak eskuratu ahal izango dira webgune horretan bertan.

Proposamenak isilpekoak dira eta, beraz, Urola Kostako Udal Elkarteak behar diren bitartekoak erabiliko ditu hori bermatzeko, lizitazio publikoaren unea iritsi arte.

Proposamena aurkezteak esan nahi du lizitatzailerak erabat eta salbuespenik gabe onartzen dituela orriotako, eskakizun teknikoaren orriotako eta gainerako kontratu-dokumentuetako baldintzak; gainera, lehiatzaileek erantzukizun-adierazpena egingo dute, aurkeztutako datu guztiak zehatzak eta egiazkoak direla adierazi eta baldintza-orri hauen xede den kontrataziorako eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela ziurtatzeko.

Lehiatzaile bakoitzak eskaintza bakarra aurkez dezake. Gainera, ezingo du aldi baterako enpresa-elkarte gisa proposamenik aurkeztu banaka proposamena aurkeztu badu; halaber, lizitatzailerak batek ezingo du aldi baterako enpresa-elkarte batean baino gehiagotan aurkeztu. Arau horiek hausteak lizitatzailerak horrek sinatutako proposamen guztiak baztertuta gelditzea ekarriko du.

Lehiatzaileek proposamena itxitako hiru kartazaletan aurkeztu behar dute, kartazal bakoitzean izenburu hau jarrita: "**Egur hondakinak kudeatzeko zerbitzua kontratatzeko lehiaketa**". Kartazalean espediente zenbaki hau adieraziko da: **2015IKIE0001**.

Gutun-azal guztietan adieraziko da enpresaren izena edo proposamena egiten duenaren izena eta abizenak. Lizitatzailerak edo horren ordezkariak izenpetu behar ditu hiru gutun-azalak.

Horrez gain, gutun-azal bakoitzak bere edukia zein den adieraziko du, izenburu hauekin:

- "1. gutun-azala: kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena"
- "2. gutun-azala: dokumentazio teknikoa"
- "3. gutun-azala: diru-eskaintza"

Gutun-azaletan honako dokumentu hauek sartu behar dira:

"1. gutun-azala: kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena"

- 1) Enpresariak edo, hala badagokio, haren ordezkariak, jarduteko gaitasuna duela egiaztatzeko dokumentuak:
 - Proposamena aurkezten duen pertsonaren Nortasun Agiri Nazionala, norberaren nahiz ahaldunaren izenean.
 - Lizitatzailerak pertsona juridikoa baldin bada, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko aurkeztu behar ditu pertsona juridiko hori eratzeko eta aldatzeko eskriturak, Merkataritza Erregistroan behar bezala izena emanda. Identifikazio Fiskaleko Txartela ere aurkeztu behar du, IFZ agertzen duena.
 - Beste norbaiten izenean proposamena sinatu edo beste norbaiten ordezkari agertzen den pertsonari behar besteko ahalmena emango dion dokumentua. Lizitatzailerak pertsona juridikoa bada, ahalordeak inskribatuta egon behar du Merkataritza Erregistroan. Ahalmena jarduera jakin baterako bakarrik izanez gero, ez da beharrezkoa Merkataritza Erregistroan inskribatuta egotea, Merkataritza Erregistroko Erregelamenduaren 94.1 artikuluari jarraiki.
 - Europar Batasuneko kide diren estatuetakoen enpresa ez espainiarrek (edo Altzairuaren Eremu Ekonomikoaren ituna sinatu zuten estatuetakoei) jarduteko gaitasuna egiaztatuko dute Administrazio Publikoaren Kontratuaren Legearen Erregelamendu Orokorren 9. artikuluko xedatutakoaren arabera.
 - Horietatik kanpo geratzen diren nazioarteko beste enpresek Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen Testu Bateginaren 55. artikuluan zehazten denaren arabera egiaztatuko beharko dute jarduteko gaitasuna.
- 2) Kaudimen ekonomikoa eta finantza-kaudimena ondorengo bidez egiaztatuko da:
 - Enpresariarekin lan egiten duen finantza-erakunde baten ziurtagiria. Ziurtagiri horrek enpresariaren kontratuaren objektua Urola Kostako Udal Elkartearekin kontratatutako nahikoa kaudimen ekonomikoa baduela adieraziko du, eskakizun teknikoak eta administrazio-baldintzen orrietan ezarritako eskakizunak betez. Bestela, lehiatzaileak arrisku profesionalari dagokion kalte-ordainaren aseguruaren ziurtagiria aurkez dezake.
- 3) Kaudimen teknikoa eta profesionala ondorengo bitartez egiaztatuko da:
 - Azken 3 urteetan egindako lan eta zerbitzu garrantzitsuenen zerrenda, burutzekoak diren zerbitzuekin harreman zuzena dutenak. Lan eta zerbitzu horien zenbatekoak, datak eta hartzaile publiko nahiz pribatuak adieraziko dira.

Egindako lan edo zerbitzuak honela egiaztatuko dira: hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean eskumena duen organoak egindako ziurtagiri edo bisatuaren bidez; hartzailea subjektu pribatua denean hartzaileak egindako ziurtagiriaren bidez edo, ziurtagiririk ezean, enpresariaren aitoren baten bidez.
 - Kontratuaren objektuak diren lanak egiteko instalazio, bitarteko eta lantaldearen inguruko xehetasunak, prestakuntza-maila adierazita. Kontratua betetzeko ardurak izango duen pertsona zehaztuko da.
 - Euskadiko Autonomia Erkidegoan egur hondakinak kudeatzeko baimendutako kudeatzailea dela egiaztatzeko agiriak.
- 4) Berriazko erantzukizun-adierazpena (**I. ERANSKINAREN** arabera egina), adierazten duena eskaintza izenpetzen duenak eta horrek ordezkari diren erakundeak ez dutela debekurik Administrazioarekin kontraturik egiteko, Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan adierazten diren debeku-egoeren arabera.
- 5) Zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharrak beteta dituela adierazten duen berriazko erantzukizun-adierazpena. Esleipendunak betebeharrak horiek betetzen dituela egiaztatuko behar du esleipena egin aurretik, horretarako Udal Elkartearen eskaria jaso eta **10 laneguneko** epearen barruan.

Ekonomia Jardueren gaineko Zergan (EJZ) alta emanda dagoela egiaztatzeko ekitaldi horretako alta-agiria edo azken ordainagiria aurkeztu behar da. Altak izan behar du kontratuaren objektuari dagokion epigrafekoa. Horrekin batera, erantzukizun-adierazpena aurkeztu behar da, zerga horretan bajarik ez duela eman adierazten duena.

- 6) Aldi baterako enpresen arteko elkarte bat bada proposamena egiten duena, elkarte osatzen duten guztiek egiaztatu beharko dute gaitasuna eta kaudimena. Gainera, enpresa horien guztien legezko ordezkariak izenpetutako dokumentu bat aurkeztu beharko da. Dokumentu horretan adieraziko dituzte honakoak: proposamena izenpetzen duten enpresaburuaren izenak eta egoera; enpresen konpromisoa, esleipendun suertatuz gero, aldi baterako enpresa elkarte formalki eratzeke; enpresa bakoitzak enpresa-elkartean duen parte-hartzea eta kontratua indarrean dagoen artean Administrazioaren aurrean guztien ordezkari izango den pertsonaren izendapena.
- 7) Atzerriko enpresek aitortzea aurkeztu behar dute, adierazten duena maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko direla kontratuak zuzenean edo zeharka izan ditzakeen gorabehera guztiak ebazteko. Halaber, beharrezko balitz, lehiatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egiten diola adierazi beharko luke. Gainera, atzerriar izateagatik aplikatu behar zaizkien legearen eta araudiaren xedapenekin bat etorri beharko dute enpresa horiek, Europar Batasuneko kide diren edo ez aintzat hartuz.
- 8) Posta elektronikoko helbidea, jakinarazpenetarako.
- 9) Gutun-azal honetan sartutako dokumentu guztien zerrenda, zenbakiz antolatuta.

* **OHARRA:** Ekonomia eta Ogasun Ministerioko Kontratisten Erregistro Ofizialeko egiaztagiria, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialeko egiaztagiria edo Gipuzkoako Foru Aldundikoa aurkezten bada, ez da beharrezkoa izango egiaztagiri horietan egiaztatutzat jotzen diren baldintzen egiaztagiriak aurkeztea, betiere egiaztagirian dokumentu zehatz horiek ageri badira eta egiaztagiri horiek baliozkoak direla eta indarrean daudela dioen zinpeko aitortzea aurkezten bada.

Udal Elkarte honek izapidetutako beste kontratazio-espedita batera 1. atalean eskatzen den dokumentazioa aurkeztu dutenek (esleipen-datatzen aurreko urtebeteko epearen barruan), ez dute berriz aurkeztu beharrik izango, beti ere, aldaketarik egon ez bada eta erantzukizuneko adierazpen bidez aldaketarik ez dela izan adierazten badute. Nolanahi ere den, aurreko lizitazioan eskatu ez zen dokumentazioa aurkeztea derrigorrezkoa izango da.

“2. gutun-azala: dokumentazio tekniko”

Agiri teknikoak: kartazal horretan honako datuak aurkeztuko dira gutxienez:

Balioespenean oinarritzen diren esleitzeko irizpideen gaineko dokumentuak, hala nola:

Memoria tekniko eta hobekuntzak, lehiatzailearen proposamena 17. baldintzan finkatutako esleitzeko irizpideen argitara baloratu ahal izateko.

Proposamen tekniko jasotzen duen memoriak barne hartu behar du lizitzailearen proposamena eta jasoko ditu eskakizun teknikoaren orrietan zehaztutako atalak eta eskakizunak.

Lizitzaileek beste datu edo erreferentzia batzuk ere aurkeztu ahal izango dituzte, proposamena hobeto baloratzeko komenigarri dela irizten badute.

Atal honetan sartu ahal izango dira eskakizun teknikoan orrietan aurreikusten direnak hobetzen dituzten bestelako orotariko hobekuntzak.

2. gutun-azalean inola ere ez da sartuko ez eskaintza ekonomikorik, ez era automatikoan zenbatgarriak diren esleipen irizpideen inguruko daturik. Datu horiek 3. gutun-azalean sartu behar dira.

Lehiatzaile batek datu horiek 2. gutun-azalean sartzen baditu, enpresa hori esleipen prozeduratik baztertuta geldituko da eta ez da aurkeztu duen 3. gutun-azala irekiko.

“3. gutun-azala: diru-eskaintza”

Proposamen ekonomikoa eta diru-eskaintza baldintzen orrion **II. ERANSKINeko** ereduaren arabera aurkeztu behar da. Dokumentu horretan adierazten den kopuruan sartuta egongo dira gastu guzti-guztiak, hala nola kontratua formalizatzeko gastuak, zerga eta tributu guztiak eta Balio erantsiaren gaineko Zerga (BEZ). Halaber, sartuta egongo dira kontratuak irauten duen epearen barruan ezartzen nahiz aldatzen diren zerga eta tributuak. Adierazitako kontzeptuak ezingo dira kontzeptu edo sail independente moduan jasanarazi.

Diru-eskaintza bat eta bakarra izango da; alabaina, agiri teknikoetan zehatz-mehatz azaltzen diren kontzeptu hauek guztiak sartuta egongo dira, beste orri batean, eskakizun teknikoan orriek ezartzen duten bezala:

- zerbitzu publikoa bideratu eta ustiatzeko behar diren bitarteko materialetan egin behar diren **inbertsioen** aurrekontua; lehiatzaileak, beharrezko jotzen dituen bitarteko materialen unitate bakoitzaren ezaugarriak adieraziko ditu (egilea, marka, modeloa, ezaugarri teknikoak eta abar), bere lan eskarmentuan eta ezagupenetan oinarrituta, kalitatearen eta prezioaren arteko oreka eta kontratuaren objektuarekiko egokitzapena kontuan hartuta, zerbitzu publikoa eraginkortasunez eta kalitaterik handienarekin ustiatzeko, eskakizun teknikoan orrietan jasotako alderdi bakoitzean eta guztietan. Lehiatzaileak eskaintza egingo du Urola Kostako Udal Elkartearen zerbitzu publikoari era eskusiboan atxikitako materialean oinarrituta.

Adieraziko dira materialen unitate bakoitzaren unitate prezioa, aurreikusitako unitate kopurua eta horiek eskuratzeko gastu osagarri guztiak.

- eta zerbitzua **ustiatzeko** aurrekontua. Zerbitzu publikoa ustiatzeko beharrezko den aurrekontu adieraziko da, eskakizun teknikoan orrietan ezarritako baldintzak betez, antolamenduari, bitartekoei eta langileei buruz ezarritakoak eta aurrez aipatutako bitarteko materialak kontuan hartuta.

Aurrekontu hori honako kontzeptu hauetan banatuko da:

Exekuzio materialaren kostua, honako hauen baturak emana:

Pertsonaleko kostuak, kontratuaren objektua burutzen zuzenean nahiz zeharka parte hartzen duten langileenak. Honakoak sartuko dira: kategoria bakoitzaren kostuak (oinarrizko lansariak, osagarriak, gizarte aseguruak eta abar), kontratatutako langileen ordezkapenak (oporrengatik, bajengatik eta abar), ustekabeko bestelako bajak eta beste edozein arrazoiren ondorio diren lanuzteak.

Materialen kostuak, zerbitzua ustiatzeko beharrezko diren bitarteko materialak (instalazio nahiz ibilgailuak) zaindu eta mantentzeko kostuak, hala nola: erregaiak, elektrizitatea, langileen aldagelak, segurtasuna, lan prebentzioa eta lan osasuna, komunikazio sistemak eta abar.

Gastu orokorrak eta industria irabazia (%): kontzeptu horiek exekuzio materialaren kostuei aplikatuko zaizkie (BEZa sartu gabe).

II. eranskineko ereduaren arabera diru-eskaintza aurkezteaz gain, orduko prezioa ere eskaini behar da. Orduko prezio hori hartuko da kontuan edozein aldaketa edo egokitzapen egin behar baldin bada.

Proposamena enpresa-elkarte batek aurkeztu badu, taldeko enpresa guztiek izenpetu beharko dute.

Dokumentazioa aurkezteko honako oharrek kontuan hartu behar dira:

1. Jatorrizko dokumentuak aurkeztu behar dira, edo indarrean dagoen araubidearen arabera benetakotzat jotzen diren kopiak.
2. Kontratua esleitu eta errekurtsioak aurkezteko epean errekurtsorik aurkezten ez bada, proposamenekin batera aurkeztutako dokumentazioa aurkeztu duen enpresaren eskura geldituko da
3. Dena dela, kontratua behin betiko esleitu eta hiru hilabeteko epea igaro ondoren, Udal Elkarteak erabaki ahal izango du enpresek erretiratu ez dituzten dokumentuak deuseztatzea.
4. Aurkeztutako dokumentuak Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batean idatziko dira (euskaraz edo gaztelaniaz). Beste hizkuntzaren batean aurkezten bada itzulpena (hizkuntza ofizial batera egina) erantsi beharko zaio.
5. Dokumentazio administratiboa eta diru-eskaintza paperean aurkeztuko dira. Esleipen-irizpideetako baldintza teknikoei dagozkien dokumentuak paperean eta euskarri elektronikoen aurkeztuko dira.
6. Proposameneko edukiak egiazkoak ote diren egiaztatu ahal izango du Urola Kostako Udal Elkarteak, bai esleipenaren aurretik, bai eta ondoren ere. Enpresak adierazitako datuak eta egoerak faltsuak baldin badira, kontratua amaitutzat jo ahal izango da, kontratuaren jabeak kontratua ez betetzeagatik. Horrenbestez, kontratuaren jabeak jarritako behin betiko bermea galduko du edo, jarri ez badu, berme horren kopuru bereko kalte-ordaina ordainduko du.
7. Lehiatzaileak, horrela irizten badio, aurkeztutako gutun-azaletan sartutako informazio eta alderdietatik sekretu tekniko edo komertzialak direla eta konfidentzialak zein diren adieraz dezake, **IV. ERANSKINEKO** ereduaren arabera. Konfidentzialtasunari buruzko dokumentu hori gutun-azal bakoitzari buruzkoa izan daiteke, lehiatzaileek horrela nahi badu. Nolanahi ere den, diru-eskaintzaren gutun-azalak ez du izaera konfidentzialik izango.

20.- ESKAINTZAK AURKEZTEA

Proposamenak Urola Kostako Udal Elkartearen egoitzan aurkeztu behar dira (Urdaneta bidea 6, Zarautz), 9:00etatik 14:00etara, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak aurreikusten duen beste edozein bide erabiliz. Eskaintzak aurkezteko epea **egutegiko 15 eguneko** da, lizitazio iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Epe horretako azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, hurrengo lanegunean amaituko da epea.

Lizitatzailak bere proposamena posta bidez igortzen badu, igorpenaren data justifikatu beharko du postetxean, eta, egun berean, eskaintza igorri duela jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari telefax edo telegrama bitartez. Bi baldintza horiek betetzen ez badira, eta dokumentazioa adierazitako epetik kanpo jasotzen badu organo kontratatzaileak, ez da dokumentazioa onartuko. Dena den, jarritako epea igaro eta hurrengo (10) egun naturalak igaro ostean ez bada proposamena jaso, ez da inola ere onartuko.

Eskaintza aurkeztu ondoren ezingo da atzera egin, administrazioen kontratuen araubideak aurreikusten dituen kasuetan izan ezik.

21.- KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Organoak Kontratazio Mahai baten laguntza jasoko du. Kontratazio Mahai horrek izango du eskaintzak baloratzeko eskumena. Honela osatuko da:

- a) Mahaiburu: Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakaria.
- b) Mahaikideak:
 - Arantza Alberdi Ibarzabal, Ingurumen Saileko arduraduna.
 - Andoni Arrizabalaga Ibarzabal, Ingurumen Saileko kale ikuskatzailea
 - Xabier Urdangarin Lasa, Euskara Zerbitzuko arduraduna.
 - Rakel Calvo Rojo, kalitateko eta lan-arriskuen prebentzioko teknikaria
- c) Idazkaria: Udal Elkarteko behin-behineko idazkari-kontuhartzailea.

Kontratazio Mahaiak ahalmena izango du, halaber, kontratua esleitzeko beharrezko jotzen dituen txosten teknikoak eskatzeko.

22.- AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitu ostean, Kontratazio Mahaiak, lehendabizi, 1. gutun-azaletan aurkeztutako dokumentuak sailkatu eta kalifikatuko ditu, epea eta forma kontuan hartuta. Hori egiteko, mahaiburuak gutun-azal horiek irekitzeko aginduko du. Kontratazio Mahaiak aurkeztutako dokumentuetan akats materialak atzematen baditu, interesdunei jakinarazi eta gehienez ere 3 laneguneko epea emango die akats horiek zuzendu edo Kontratazio Mahairen aurrean konpontzeko. Hori egingo da Administrazio Publikoen Kontratuen Erregelamendu Orokorraren 81. artikuluko ezartzen duen prozeduraren bidez.

3/2011 LEDren 82. artikuluko ezarritako ondorioetarako, Kontratazio Mahaiak enpresariei eskatu ahal izango die aurkeztutako ziurtagiri eta dokumentuen gaineko argibideak emateko edo osagarri diren beste dokumentu batzuk aurkezteko. Hori egiteko, gehienez, 5 laneguneko epea emango die. Epe horretan, gorago aipatutako erregelamenduaren 22. artikuluko xedatzen duenez, ezingo da aurkeztu proposamenak aurkezteko epean edo gorago adierazitako akatsak konpontzeko epean aurkeztu behar zen dokumenturik.

Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 146.1 artikuluko adierazitako dokumentuak sailkatu eta aurkeztutako agiritan leudekeen hutsune eta hutsegiteak konpondu ondoren, Kontratazio Mahaiak lehiaketan parte hartzeko irizpideak betetzen dituzten enpresak hautatuko ditu. Kontratazio Mahaiak berriaz adieraziko ditu lehiaketan parte hartzeko onartutakoak, baztertutakoak eta baztertzeko arrazoiak.

Lehiaketan parte hartzeko onartutako enpresen eta baztertutako enpresen zerrendak (bazterteza eragin duten arrazoiekin) aztertu ahal izango dituzte aurkeztutako enpresek, Kontratazio Mahaiaren aurrean. Nolanahi ere den, Kontratazio Mahaiak aukera izango du informazio hori publikoki ezagutzera emateko, Udal Elkartearen iragarki taularen bidez edo sistema elektronikoen bidez (kontratazailearen profilaren bidez edo prozedurarekin bat datorren beste bideren baten bidez).

Kontratazio Mahaiak kontratazailearen profilaren bidez (www.urolakosta.org) jakinaraziko du noiz (eguna eta ordua) eta non egingo den lehiaketan parte hartzeko onartutako zerrenda jakinarazteko ekitaldi publikoa (aurrez 1 gutun-azalean aurkeztutako dokumentuak aztertuta). Ekitaldi berean eskaintza teknikoak dakartzaten 2 zenbakiko gutun-azalak irekiko dira.

Ondoren, Kontratazio Mahaiak eskaintza teknikoak utzi ahal izango ditu kontratazioa sustatu duten zerbitzu teknikoaren esku, baldintzen orrietan ezarritako irizpideen argitara azter ditzaten; halaber, beharrezko jotako bestelako txostenak ere eskatu ahal izango ditu. Beharrezko informazioa jaso ondoren, Kontratazio Mahaiak eskaintzak ebaluatu egingo ditu, ezarritako irizpideen argitara.

Proposamen ekonomikoak dakartzaten 3 zenbakiko gutun-azalak irekiko dira ekitaldi publikoan. Ekitaldi hori noiz eta non egingo den jakinaraziko da kontratazailearen profilaren bidez (www.urolakosta.org) eta onartutako

lehiatzaileei bidaliko zaien komunikazioaren bidez. Ekitaldi horretan balioespenean oinarritzen diren esleitzeko irizpideen balorazioaren berri emango da.

23.- ESLEIPENA

Kontratazio Organoak, Kontratazio Mahaiaren proposamenaren haritik, baldintzen orriotan zehaztutako irizpideak balioetsi ostean, sailkatu egingo ditu aurkeztutako proposamenak, puntu gehien lortu dituenetik gutxien lortu dituenera.

Aurreko eginbideak burututakoan, Kontratazio Organoak ekonomikoki eskaintza onuragarriena egin duen lehiatzaileari eskatuko dio ondoko jarduera hauek burutu dituela egiaztatzeko agiriak aurkezteko, **hamar laneguneko** epearen barruan:

- Zerga arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharrak beteta dituela egiaztatzeko ziurtagiriak aurkeztu (agiri horiek eskaintzarekin batera aurkeztu ez baditu).
- Baldintzen orriotako hamaikagarren baldintzan eskatzen diren polizen kopiak eta ordainagiriak aurkeztu (gutxienez 600.000,00 euroko estaldurarekin).
- Behin betiko bermea jarri.
- Esleipenduna aldi bateko enpresa-elkarte bat baldin bada, kontratua sinatu aurretik aldi bateko enpresa-elkarte gisa eratu dela egiaztatu eta IFZ aurkeztu behar du.
- Kontratazio Organoak eskatzen dizkion bestelako dokumentuak.

Kontratazio Organoak kontratua esleituko du aipatutako agiriak jaso eta **bost laneguneko** epearen barruan.

Esleipen erabakia Kontratazio Organoak hartuko du, arrazoitutako ebazpenaren bidez. Ebazpen hori lehiatzaileei jakinarazi egingo zaie eta argitara emango da Kontratazio Organoaren kontratatzailearen profilean.

24.- KONTRATUA GAUZATU ETA FORMALIZATZEA

Kontratu hau gauzatuko da formalizatzen denean. Lizitazioaren eta esleipenaren iragarkien gastuak Udal Elkarteari dagozkio.

Esleipenduna aldi bateko enpresa-elkarte bat baldin bada, kontratua sinatu aurretik aldi bateko enpresa-elkarte gisa eratu dela egiaztatu eta IFZ aurkeztu behar du.

Kontratu administrazio-agiri gauzatuko da **15 laneguneko** epearen barruan, esleipenaren jakinarazpenaren hurrengo egunetik kontatzen hasita. Agiri hori bere baitan aski izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Dena dela, esleipendunak kontratuaren eskritura publikoa egiteko eskatu ahal izango du. Horrela izanez gero, eskritura egiteko gastuak esleipendunak ordainduko ditu.

Esleipendunaren errua dela eta epe horretan kontratua formalizatzen ez bada, Udal Elkarteak erabaki ahal izango du kontratua amaitutzat ematea eta behin betiko garantia inkautatzea. Administrazioari egotz dakizkioken arrazoiengatik egin ez bada formalizazioa, kalte-ordaina ordainduko dio kontratuaren jabeari, berandutzeak eragin ditzakeen kalte eta galerengatik.

HIRUGARREN ATALA – IZAERA, ARAUBIDEA ETA ESKUMENA DUEN JURISDIKZIOA

25.- IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Baldintzen orriotan oinarrituta egingo den kontratua administratiboa da, eta honako hauen bidez arautuko da:

- Administrazio-baldintza zehatzen orri hauek.
- Eskakizun teknikoaren orriak.
- Urola Kostako Udal Elkartearen eta esleipendunaren artean sinatzen den kontratu-dokumentua.



- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, ekainaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen zati batzuk garatzen dituena; Administrazio Publikoen Kontratuen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuko indargabetu gabeko arauak.
- 1955eko ekainaren 17ko Dekretua, Toki Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duena, 2/2000 ELDn eta 1098/2001 EDn ezarritakoaren aurkakoa ez bada.
- 34/2010 Legea, abuztuaren 5koa.
- Kontratazio administratiboa arautzen duten eta aplikagarri diren gainerako xedapen guztiak.
- Ordezko zuzenbide izango dira administrazio-zuzenbideko arau orokorrak, eta, horien ezean, zuzenbide pribatukoak.

Kontratu-jabeak kontratuari aplikagarri zaizkion arauak zein diren ez jakiteak ez du hori betetzeko beharretik salbuetsiko.

Administrazio-baldintzen orriotan adierazitakoa kontraesanean badago espedienteko gainerako dokumentazio teknikoarekin, orriotan ezarritakoak izango du lehentasuna.

26.- JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratua interpretatzen, aldatzen, amaitzen edo amaitzearen ondorioak zehazten sor litezkeen gorabeherak Kontratazio Organoak erabakiko ditu, eta kontratazio-organoaren isiltasuna gertatzen bada, gorago aipatutako araubidearen argitara. Kontratazio Organoaren erabakiek amaiera emango diote administrazio-bideari eta, horien aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen Legearen arabera. Dena dela, interesdunek berraztertze errekurtsoa aurkezteko aukera dute, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 116 eta 117 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

EGINBIDEA:

Eginbidea, nik, Urola Kostako Udal Elkarteko idazkari-kontuhartzaileak egina, jasota uzteko administrazio baldintzen orri hauek Udal Elkarteko lehendakariak onartu zituela, 2015ko martxoaren 3ko 15/00017 zenbakiko ebazpenaren bidez.

Zarautzen, 2015eko martxoaren 3an



I. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNEZKO ADIERAZPENAREN EREDUA

Nik, jaunak/andreak, adinez nagusiak, zenbakiko NA duenak (helbidea; tel.....; faxa.....) bere izenean edoren izenean eta ordezkartzen (sozietatearen helbidea; IFK:.....; tel.; faxa), aitortzen dut, nik edo, hala badagokio, ordezkatzeko dudako enpresak, gaitasun osoa duela Administrazio Publikoarekin kontratatzeko, jarduteko gaitasun osoa duela eta ez dagoelako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan ezarritako egoeretan. Bereziki, adierazten dut ez duela inoiz zigor irmorik jaso laneko segurtasun edo osasuneko arau-hauste oso larriengatik, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60 c) artikulua araberak.

Era berean, aitortzen dut

- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean betetzen ditudala, Administrazio Publikoaren Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko (1098/2001 ED, urriaren 12koa) 13. eta 14. artikuluek aurreikusten duten irismenarekin.
- Gure sozietatea Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dagoela kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, eta ez duela baja eman zerga horretan.

(Tokia, data eta sinadura)



II. ERANSKINA

DIRU-ESKAINTZA EGITEKO EREDUA

Nik, jaunak/andreak, zenbakiko NA duenak (helbidea), nire izenean (edo enpresaren izenean; IFZ; helbidea) (pertsona fisikoa edo juridikoa izatearen arabera), gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasuna ditudalarik,

ADIERAZTEN DUT

1) Urola Kostako Udal Elkartearen jabetzakoak diren instalazioetan jasotako egur-hondakinak kudeatzeko zerbitzuaren kontratua arautzen duten administrazio baldintza zehatzen orriak, eskakizun teknikoen orriak eta bestelako agiriak ezagutzen ditut.

2) Ordezkatzen dudan enpresak indarrean dagoen araudiak kontratu hau gauzatzeko eskatzen dituen baldintza eta betebeharrak betetzen ditu, bai eta kontratu honetarako ezarritako baldintza zehatzak ere.

3) Etlependun gertatuz gero, lan guztiak eskaintzan zehaztu bezala burutuko ditut, baldintzen orrietan azaltzen diren betebeharrak eta baldintzei lotuta, honako prezioan:

.....euro (letraz adierazi)

..... BEZa (%.....)*.

GUZTIRA:

Prezio horretan sartuta daude kontzeptu guztiak, hau da, edozein arlo fiskaleko zerga, gastu, tasa edo arbitrioak, eta baita BEZ eta kontratuaren jabearen industria-irabazia ere.

4) Era berean, konpromisoa hartzen dut lan eta zerga arloko araubideak betetzeko.

(Tokia, data eta sinadura)

*** Eskaintzan bereiz adierazi behar da Balio Erantsiaren gaineko Zerga; kontratuari dagokion araubidearen argitara dagokion ehunekoa eta kopurua zehaztu behar da. Diru-eskaintza xehatuta ez baldin badago, baztertu egingo da. Horrez gain, 19. baldintzan (3. gutunazalari buruzkoan) adierazitako azalpen-orria erantsi behar da.**

II. ERANSKINA

LAN ARRISKUAK PREBENITZEKO BALDINTZAK

Baldintza-orrion helburua da Urola Kostako Udal Elkartearen zentroetan edo Udal Elkartearen aginduz beste leku batean zerbitzuak kudeatzeko kontratu baten bidez diharduten kontratu jabeek lan arriskuen prebentzioaren arloan bete behar dituzten baldintzak finkatzea.

I. JAKINARAZTEKO BETEBEHARRA.

a) Eskaintza egiteko unean

Kontratuaren jabeak bere eskaintzan honakoak adierazi behar ditu:

1. Bere enpresan indarrean dagoen prebentzioaren antolamenduaren deskribapena, enpresaren jardueran izaera orokorrarekin arriskuak prebenitzeko ezarritako kudeaketa-sistema.
2. Koordinazio-arduraduna, laneko arriskuen prebentzioaren arloan. Enpresa esleipendunak honako hauek adierazi beharko ditu bere eskaintzan:
 - i. Lan-arriskuen prebentzioaren arloan koordinatzaile gisa izendatutako pertsonaren datuak.
 - ii. Enpresaren agiria, pertsona hori izendatzen duena.
 - iii. Lan-arriskuen prebentzioaren arloko maila akademikoa edo esperientzia-urteak.

b) Kontratua burutzen ari dela

b.1) Jarduera hasi aurretik

Jarduerari ekin aurretik kontratuaren jabeak honakoak jakinarazi behar dizkio idatziz Urola Kostako Udal Elkarteari:

1. Kontratutako zerbitzua dela eta egindako lan arriskuen prebentziorako plangintza (arriskuen ebaluazioa, segurtasun neurriak, babesteko ekipo indibidualak, taldeko babes ekipoak, prestakuntza...). A eranskina behar bezala bete eta eskatutako dokumentuak erantsita.
2. Zerbitzua burutzeko kontratuaren jabeak izendatutako arduraduna. Izendatutako pertsonak izango du zuzenean (kontratutako enpresak barne) bere esanetara lanean ari diren pertsonen lan arriskuei eta hartu beharreko segurtasun neurriei buruzko informazioa eta prestakuntza emateko ardura; halaber, bere eginkizuna izango da lan arriskuak prebenitzeko arauak bete eta betearaztea.

b.2) Zerbitzuak ematen ari direla.

Lanak egiten diren artean, enpresako pertsona arduradunak honakoak jakinaraziko dizkio idatziz Urola Kostako Udal Elkarteak izendatutako pertsona arduradunari:

1. Edozein aldaketa garrantzitsu kontratuaren jardueran, langileen laneratzeak edo uzteak, zerbitzua ematean sortutako edozein gertakari. Idatzi horretan adieraziko da, baita ere, aldaketak zer behar sorrarazi dituen segurtasunaren eta osasunaren arloan.
2. Kontratu-jabearen langileek istripuren bat izaten badute, idatziz jakinaraziko zaio Urola Kostako Udal Elkarteari. Komunikazio idatzian adieraziko da istripua nola gertatu zen, zer lesio izan diren, zergatik gertatu den, eta zer neurri hartu diren horren inguruan.

II. KONTRATATUTAKO ENPRESAREN EGINBEHARRAK ZERBITZUA BURUTZEN ARI DELA.

1. Lanei ekin aurretik, kontratuaren jabeak izendatutako arduradunak lanak egiteko eremua bisitatuko du, horretarako Urola Kostako Udal Elkarteak izendatzen duen pertsonarekin batera. Bisita horretan lanaren eremua mugatuko da, eta erabakiko da fisikoki eremua mugatzea beharrezkoa den ala ez (ingurua mugatu, itxi, eskudelak jarri eta abar).

- Halaber, bisita horretan zehaztuko da zerbitzu burutzen den bitartean segurtasuneko zer nolako seinaleak erabiliko diren eta non jarriko diren. Horrekin batera, lanen eremura sartu eta eremuan ibili eta aritzeko derrigorrezkoak diren banan-banako babes ekipoak zehaztuko dira.
2. Kontratuaren jabeak eta Urola Kostako Udal Elkarteak zerbitzua burutzen den unean egin ezin diren jarduerak (jarduera bateraezinak) zehaztuko dituzte, eta idatziz adieraziko dute bateraezinak diren jarduerak burutzeko debekua ezarriko dute.
 3. Kontratu-jabearen langile guztiek izan beharko dute horretarako behar den prestakuntza; hala badagokio, ziurtagiri ofizialak eduki behar dituzte, behar bezala eguneratuak. Gainera, langile guztiek jaso behar dituzte Urola Kostako Udal Elkartearentzat egin behar duten lanaren inguruko prestakuntza eta jarraibideak, eta, bereziki, segurtasunarekin eta osasunarekin erlazioatutakoari dagokionez.
 4. Laneko agintaritzak zehapen bat ezartzen badio Urola Kostako Udal Elkarteari, kontratu-jabearen langileek laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko neurriak bete ez dituztelako, Urola Kostako Udal Elkarteak dagozkion legezko eginbideak hasi ahal izango ditu kontratu-jabearen aurka.
 5. Kontratu-jabeak zerbitzua ematen ari dela erabiltzen dituen material eta ekipamendu guztiek, bai norbanakoen babeserakoek, bai babes kolektiborakoek ere, laneko arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dagoen araudia bete behar dute, eta hori egiaztatzen duten ziurtagiriek Urola Kostako Udal Elkartearen eskura egon behar dute.
 6. Urola Kostako Udal Elkartearen zentro batean edo Udal Elkartearen esanetara ari den langile orok egiten ari den lanarekin bat datorren janzkera izango du, betiere egoera onean, garbi eta txukun.
 7. Urola Kostako Udal Elkartearen zentro batean edo Udal Elkartearen aginduetara lan egiten duten langile guztiak behar bezala identifikatuta egongo dira, bai eta zerbitzua ematean erabiltzen dituzten ekipamenduak ere.
 8. Hilero, enpresa kontratu-jabeak txosten ofizialaren kopia bat igorriko dio Urola Kostako Udal Elkarteari, zerbitzua eskaintzen ari dela gertatutako istripuei buruzkoa. Txosten horretan adieraziko dira istripuak eta istripuak sorrarazi dituzten gertakari eta gorabehera guztiak.

Pertsonak edo instalazioek istripu larriren bat izaten badute, edo unean larrizat edo oso larrizat har daitekeen istripuren bat gertatzen bada, berehala jakinaraziko zaio Urola Kostako Udal Elkarteari.
 9. Kontratu-jabeak Urola Kostako Udal Elkarteari egiaztapenak igorri behar dizkio, Gizarte Segurantzako, langileen mutualitateko eta lan-istripuen aseguruako kuotak egunean ordaintzen dituela egiaztatzeko.
 10. Kontratu-jabeak ezingo ditu lanak azpikontratatu Urola Kostako Udal Elkartearen baimenik gabe. Horrela izanez gero, enpresa azpikontratatuak edo autonomoen erregimeneko langileek dokumentu honetako eskakizun berak bete beharko dituzte. Kontratu-jabea izango da eskakizunen eta ez betetzeen erantzule Urola Kostako Udal Elkartearen aurrean.
 11. Urola Kostako Udal Elkarteak ikuskatu ahal izango ditu, baita ere, azpikontrata edo autonomoen erregimeneko pertsona horiek.

A ERANSKINA ENPRESA-JARDUEREN KOORDINAZIOA

KONTRATATUTAKO ENPRESAREN DATUAK			
Sozietatearen izena:			
IFK:		Jarduera:	
Kontrataturako zerbitzua			
Kontrataturako zerbitzuaren solaskidea			
Izen-abizenak			
Lanpostua			
Telefonoa		e-maila	
Lan segurtasunaren eta osasunaren arloko solaskidea			
Izen-abizenak			
Lanpostua			
Telefonoa		e-maila	
Prebentzio-antolaketako modalitatea			
<input type="checkbox"/> Kanpoko prebentzio zerbitzua :			
<input type="checkbox"/> Izendaturako langilea:			
<input type="checkbox"/> Bertako prebentzio zerbitzua			
<input type="checkbox"/> Prebentzio-zerbitzu mankomunatua			
<input type="checkbox"/> Enpresaburuak bere gain hartzea			
JARDUERAREN HASIERAN AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK			
1. Kontrataturako/azpikontrataturako zerbitzua emango duten langileen zerrenda (Langileen izenen zerrenda osatu).			
2. Kontrataturako zerbitzua egingo duten azpikontrata eta autonomoen zerrenda (Bete azpikontraten edo autonomoen zerrenda)			
3. Gizarte Segurantzako ordainketak egunean ordainduta daudela adierazten duen egiaztagiria (ziurtagiri horretan sartuta agertuko dira zerbitzua eskaintzen parte hartuko duten langile guztiak) edo, bestela, hileko ordainketaren TC agiria eta autonomoen hileko ordainketen ordainagiriak. Hilabete 1eko balioa; beraz, iraupen luzeagoa duten kontratuetan eguneratutako ziurtagiria bidali beharko da.			
4. Ogasuneko ordainketak egunean ordainduta daudela adierazten duen egiaztagiria (urte 1eko balioa).			
5. Erantzukizun zibileko polizaren fotokopia eta ordainagiria (urte 1eko balioa).			
6. Ituna kanpoko prebentzio-zerbitzu batekin, edo bertako prebentzio-zerbitzuaren ziurtapena edo izendaturako langilea, indarraldia adierazita.			
7. Idatziz egiaztatzea zerbitzua emango duten langileen osasuna zaintzeko betebeharrak bete direla, egin behar duten lanak dakartzan arriskuak kontuan hartuz.			
8. Parte hartuko duten lanpostuen arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-jardueren plangintza.			
9. Zerbitzuan erabiliko diren makina eta ekipoen zerrenda, fabrikazio urtea adierazita.			
10. Langileek lan-arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza, egin behar duten lanerako beharrezko dena, jaso dutela egiaztatzen duen dokumentua.			
11. Zerbitzuko jarduerak burutzeko behar diren babesteko ekipoak langileei eman zaizkiela adierazten duen egiaztagiria.			
12. Langileek Urola Kostako Udal Elkarateak emandako informazioa jaso dutela adierazten duen egiaztagiria (lanpostuaren arriskuen ebaluazioa eta hartu beharreko neurriak, segurtasun arauak eta larrialdiko neurriak).			
OHARRAK			
Azpikontrataturako enpresako arduradunak kontratu-jabeari jakinarazi egin behar dizkio izendaturako langileen aldaketak, laneratzeak edo uzteak. Kontrataturako/azpikontrataturako enpresak ez baditu betetzen aipaturako eskakizunak, edo ez badu edozein aldaketa, gertakari edo istripu jakinarazten, kontratua desegin egin ahal izango da.			

IV. ERANSKINA
(aukerakoa)

ENPRESAK AURKEZTUTAKO INFORMAZIOAK KONFIDENTZIALAK DIRELA ADIERAZTEKO
EREDUA

Nik, jaunak/andreak,
zenbakiko NA duenak (helbidea), nire izenean (edo
..... enpresaren izenean; IFZ; helbidea
.....) (pertsona fisikoa edo juridikoa izatearen arabera), gaitasun
juridiko osoa eta jarduteko gaitasuna ditudalarik,

ADIERAZTEN DUT

..... zenbakiko kontratazio espedientera gutun-azalean (adierazi zein) aurkeztutako
dokumentuak direla eta, honako informazio eta alderdiak konfidentzialak direla, sekretu tekniko eta
komertzialak direlako:

Izaera konfidentziala honako arrazoi hauei zor zaie:

(Tokia, data eta sinadura)